

RAPPORT D'ACTIVITE & PLAN D'ACTION
AKTIBITATE TXOSTENA & EKINTZA PLANA

POLITIQUE PUBLIQUE DE LA LANGUE BASQUE

HIZKUNTZA POLITIKA PUBLIKOA



BIARRITZ

5 juillet 2018 – 2018ko uztailaren 5a

Erreferentziako dokumentu 1 1 document de référence



4 erronka nagusi 4 enjeux interconnectés



8 lan ardatz 8 axes de travail



Axe 1 : POLITIQUE GÉNÉRALE

Intégrer la langue de façon transversale dans la politique générale de la Ville.



Axe 2 : COMMUNICATION

Développer l'usage du basque dans la communication de la Ville



Axe 3 : PAYSAGE LINGUISTIQUE

Densifier la signalétique bilingue et la présence de la langue sur les supports visuels et sonores



Axe 4 : FORMATION PROFESSIONNELLE

Engager le personnel communal dans une démarche de formation et d'usage de la langue dans le cadre professionnel



Axe 5 : ACCOMPAGNEMENT DES OPERATEURS

Accompagner les acteurs dans leur volonté d'usage et de diffusion de l'euskara



Axe 6 : ACTIVITES LINGUISTIQUES

Organiser des actions linguistiques, en partenariat avec les différents opérateurs, afin de créer des opportunités d'usage



Axe 7 : ENSEIGNEMENT-APPRENTISSAGE-PETITE ENFANCE

Favoriser l'enseignement et l'apprentissage de la langue par les enfants et adultes



Axe 8 : INFORMATION-SENSIBILISATION

Elaborer et diffuser des dispositifs d'information et de sensibilisation en direction du public.

CONTEXTE

Le 24 juillet 2015, la Ville de Biarritz et l'Office public de la langue basque (OPLB) signaient une convention de partenariat de 3^{ème} génération, actant ainsi leur volonté d'opérer une montée en puissance de l'action en direction de l'euskara et ouvrant la voie à la création d'un service municipal dédié.

Un bilan d'étape nécessaire

Beaucoup de choses ont été accomplies en 3 ans. Le service s'est progressivement structuré : il compte aujourd'hui 3 agents dédiés positionnés au sein du Pôle Culture à la Villa Natacha.

Cet outil administratif inédit à l'échelle du territoire a permis de mettre en œuvre des actions innovantes et de créer des dispositifs adaptés. Nous évaluerons ici les actions réalisées et analyserons les retombées directes.

Une projection indispensable

Mais cette instance de concertation est aussi chargée de définir les orientations. Nous déterminerons donc ensemble les projets structurants à venir et un échéancier précis de mise en œuvre.

Aujourd'hui, le défi est de permettre davantage aux nouvelles générations d'acquérir cette langue dès la petite enfance. Il convient également de rendre l'euskara visible dans l'espace public en agissant sur le paysage urbain et la communication publique. Enfin, tout cela nécessitera un consensus fort et un accompagnement de qualité. Comme dans le passé, Biarritz devra faire preuve d'inventivité et d'audace.

Une transversalité à renforcer

Le projet de revitalisation de l'euskara doit être collectif et dépasser le cercle des locuteurs attachés à leur langue. A l'échelle d'une ville, l'enjeu linguistique doit donc irriguer chaque maillon de l'administration, chaque opérateur majeur, chaque grand événement, chaque association de terrain.

Mais la transversalité s'applique aussi aux acteurs de l'euskara. Dans nos politiques publiques naissantes, il reste encore beaucoup de dispositifs à créer et de nouveaux champs à explorer. Des espaces horizontaux de travail seront indispensables entre opérateurs publics (CAPB – OPLB – Communes) et associatifs.

TESTUINGURUA

2015eko uztailaren 24ean, Biarritz Hiriak eta Euskararen erakunde publikoak (EEP) 3. belaunaldiko partaidetza hitzarmen bat sinatu zuten, euskararen aldeko ekintzak indartzeko haien borondatea erakutsiz, eta horretarako hiriko zerbitzu berezi bat sortuz.

Beharrezko bilana

3 urtez hainbat gauza lortu dira. Pixkanaka zerbitzua egituratu da: gaur egun 3 agente zenbatzen dira Villa Natacha egoitzan kokatua den Kultur Poloaren baitan.

Tresna administratibo hau berria da lurraldean eta baliagarria da ekintza berritzaileak eta baliabide egokiak plantan ezartzeko. Hemen aztertuko ditugu orain arte egindakoak eta ekarri dituzten ondorioak.

Baitezpadako proiektzioa

Baina topaketa hau baliatuko dugu ere hemendik aitzina egin beharrekoak zehazteko. Beraz, elgarrekin finkatuko ditugu epe laburrean aitzinatu beharreko dozierrak.

Gaur egun, belaunaldi berriei euskara lehen haurtzarotik ikasteko ahala ematea da erronka. Gainera, eremu publikoan euskara ikusgai izatea komeni da. Horretarako, hiriko paisaian eta komunikazio publikoan eragin behar da. Azkenik, kontsentsu sozial zabala eta aldaketen aitzinean kalitatezko laguntza beharrezkoak izanen dira. Iraganean egin bezala, Biarritzek sormena eta kuraia erakutsi beharko ditu.

Zeharkakotasuna, indartzekoa

Haatik, euskararen biziberritzearen aldeko politika publikoa proiektu kolektibo bat da eta ez da soilik euskal hiztunen eginbearra. Hiri baten eskalan, horrelako pario linguistiko batek administrazioko maila guztiak hunkitu behar ditu, eragile nagusi guztiak, hiriko gertakari guztiak, elkarte guztiak.

Zeharkakotasunaren logika euskararen aldeko eragileen arteko elkarlanari ere aplikatu diezaiokegu. Sortzen ari diren politika publikoetan, oraindik dispositibo anitz dugu eratzeko eta eremu sozial berriak irabazteko. Eragile publiko eta euskalgintza sozialaren arteko lankidetzak espazio horizontalak ezinbestekoak izanen dira etorkizunean ere.



Axe 1 : POLITIQUE GÉNÉRALE

Intégrer la langue de façon transversale dans la politique générale de la Ville.

ACTIONS REALISEES :

- **Politique linguistique** | Rédaction d'un document de référence et d'une vidéo didactique, permettant une meilleure appropriation par tous.
- **Impulsion transversalité** | Organisation de réunions de travail par le DG avec les chefs de service concernés par la politique linguistique.
- **Commissions** | Intégration du volet « langue basque » dans une Commission municipale.
- **COFIL** | Organisation de 3 réunions et envoi de 6 notes d'information aux membres.
- **CEMLB** | Organisation de 3 réunions de la Commission extramunicipale de la langue basque (instance de participation).
- **Réseau** | Participation aux réunions du réseau des techniciens LB et grande implication aux groupes de travail thématiques en lien avec l'OPLB et les intercommunalités.

LIMITES OBSERVEES :

- **Cloisonnement** | Dimension linguistique insuffisamment intégrée dans le fonctionnement quotidien des services.
- **Réseau des techniciens** | Absence de réunion de coordination depuis novembre 2016.

PROPOSITIONS D'ACTIONS :

- 1) Diffuser une note interne afin d'affirmer la volonté d'intégrer l'euskara dans les réalisations en direction du public. 11/2018
- 2) Organiser une réunion de présentation de la politique linguistique et de ses enjeux en direction des Chefs de service. 11/2018
- 3) Désigner des « référents euskara » chargés de la veille et du suivi dans les services stratégiques. 01/2019
- 4) Pérenniser le Comité de Pilotage de la Ville, en y associant à titre consultatif les communes de Bayonne et Hendaye, l'OPLB et la CAPB. 09/2019



1. ardatza: POLITIKA OROKORRA

Euskara zeharkako moldean sarrarazi Hiriko politika orokorrean.

OBRATUTAKO EKINTZAK:

- **Hizkuntza politika** | Gure ekintzen aurkezteko erreferentziako dokumentu eta bideo baten sorrera, gure lana sozializatzeko gisan.
- **Zeharkakotasunaren bultzatzea** | Zuzendari nagusiak antolaturiko lan bilkurak hizkuntza politikaren hartzaile diren zerbitzu buruekin.
- **Batzordeak** | Euskara gaiaren txertatzea herriko lan batzorde batean (hautetsi-agente).
- **Gidaritza batzordea** | 3 bilkuren antolaketa eta kideei 6 informazio nota igortzea.
- **EHB** | Euskararen herri batzordeko 3 bilkuren antolaketak (kontzertazio eta parte hartze instantzia).
- **Sarea** | Euskara teknikari-garatzailen sareko bilkuretan parte hartzea eta EEP-Elkargo-Hiri arteko lantalde tematikoetan inplikazio azkarra.

AURKITUTAKO MUGAK:

- **Herstura** | Zerbitzuek ez dute dimentsio linguistikoa arras integratua haien eguneroko funtzionamenduan.
- **Teknikari sarea** | Koordinazio bilkurarik ez da izan 2016ko azaroaz geroztik.

EKINTZA PROPOSAMENAK:

- 1) Publikoari begirako proiektu guzietan euskararen presentzia segurtatzeko nahikeria oroitarazi nota baten bidez. 2018/11
- 2) Bilkura bat antolatu zerbitziburuekin hizkuntza politika eta bere helburuak aurkezteko. 2018/11
- 3) Zerbitzu estrategikoetan euskara erreferente batzuk izendatu, beilaz eta segipenaz arduratzeko. 2019/01
- 4) Euskararen gidaritza batzordea iraunarazi, beste herri (Baiona eta Hendaia) eta eragile publikoak (EEP eta Euskal Elkargoa) gomitatuz kanpo eragile gisa. 2019/09



Signature de la convention entre la Ville de Biarritz et l'OPLB, en présence d'une grande délégation d'élus. Réunion de travail avec M. le Maire et Maïalen Etcheverry. Biarritzeko Herriko Etxearen eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hitzarmenaren izenpetzea, hautetsi anitzen presentziarekin. Lan-bilkura Auzapeza eta Maïalen Etcheverryekin.



Réunions de la Commission extramunicipale (associations, agents, élus) et du Comité de Pilotage (élus, agents, OPLB). Batzordearen bilkura (elkartek, agenteak, hautetsiak) eta Gidaritza Batzordearen bilkura (hautetsiak, agenteak, EEP).





Axe 2 : COMMUNICATION

Développer l'usage du basque dans la communication de la Ville

ACTIONS REALISEES :

- **Sites internet** | Mise en ligne en cours d'une version intégralement bascophone du site Biarritz Tourisme. Traduction partielle du site de la ville et de l'espace famille (60% de l'architecture, 90% des contenus fixes, 75% des actualités).
- **Biarritz Magazine** | Traduction des éléments de maquette (têtières, dates, rubriques), résumés d'articles et page dédiée (présence systématique aux conférences de rédaction).
- **Relation presse** | Accompagnement de la TV participative Kanaldude sur des plateaux en direct (FIPA, Korrika, expo Zigor...).
- **Chroniques** | Réalisation de chroniques mensuelles en basque à la radio sur l'actualité de la ville (en associant un agent en formation).
- **Invitations** | Envoi d'invitations bilingues pour les réceptions.
- **Traductions** | Mesure des traductions réalisées depuis 2011.

LIMITES OBSERVEES :

- **Autonomisation** | Manque de procédure à destination des services, pour faciliter les prestations de traduction.
- **Systématisation** | Difficulté à systématiser la présence de la LB sur les nouveaux supports : elle est totalement absente de certaines éditions ou variable en fonction du contenu.
- **Biarritz Magazine & Site de la ville** | Formule de bilinguisme insatisfaisante (LB disséminée).

PROPOSITIONS D'ACTIONS :

- 5) Adopter et diffuser au communicants une charte pratique de la communication municipale bilingue. 12/2018
- 6) Augmenter la présence de l'euskara sur le site de la ville et des satellites (Médiathèque, Espace famille...). 07/2018
- 7) Renforcer le partenariat institutionnel avec le réseau des médias bascophones. 03/2019



2. ardatza: KOMUNIKAZIOA

Euskararen erabilpena garatu Hiriko komunikazioan.

OBRATUTAKO EKINTZAK:

- **Webguneak** | Biarritz Tourisme webgunearen euskarazko bertsio osoa sareratzen ari da. Hiriko webgunearen eta Familia Exokoaren itzulpen partziala (arkitekturaren %60, eduki finkoaren %90 eta aktualitatearen %75).
- **Biarritz Magazine** | Maketako zenbait elementuren itzulpena (izenburuak, datak, atalak), artikuluen itzulpena eta euskarazko orrialdea (erredakzio konferentzietan parte-hartze sistematikoa).
- **Prentsa harremana** | Kanaldude telebista parte hartzailearen laguntza (FIPA, Korrika, Zigor erakusketa...).
- **Kronikak** | Biarritzeko berrien inguruan 20 hilabeteroko kroniken grabaketa euskaraz (formakuntzan den agente bat juntatuz).
- **Gomitak** | Gertakarien kariatara gomita elebidunak igortzea.
- **Itzulpenak** | 2011tik goiti egindako itzulpenen neurketa.


AURKITUTAKO MUGAK:

- **Autonomizazioa** | Zerbitzuei zuzendutako prozedura eskasa itzulpenen egitea errazteko.
- **Sistematizazioa** | Euskarri berrietan euskararen presentzia sistematizatzeko zailtasuna: edizio batzuetan euskararik ez da agertzen edo edukiaren arabera aldatzen.
- **Biarritz Magazine eta webgunea** | Elebiduntasun formula ez ona, hiztun eta ikasleen ikuspuntutik (euskara barreiatua).


EKINTZA PROPOSAMENAK:

- 5) Hiriko komunikazio elebidunaren xarta praktikoa onartu eta komunikatzaileei hedatu. 2018/12
- 6) Hiriko eta sateliteen atarian euskararen presentzia indartu (Mediatekako, Familien txokoa...). 2018/07
- 7) Partaidetza instituzionala azkartu euskal hedabideen sarearekin. 2019/03


Bénéficiaires des traductions Itzulpenen hartzaileak



Evolution du nombre de mots traduits Euskaratutako hitzen kopurua



Destination des traductions Itzulpenen erabilera



Plus de 285.000 mots ont été traduits en 3 ans, à 63% pour le compte des services de la ville. Les demandes ont été multipliées par 1,8.
285.000 hitzetik gora itzuli ditugu 3 urtean, horietarik %63 hiriko zerbitzuek galdeturik. Galdeak 1,8z biderkatu dira.



Axe 3 : PAYSAGE LINGUISTIQUE

Densifier la signalétique bilingue et la présence de la langue sur les supports visuels et sonores

ACTIONS REALISEES :

- **Signalétique directionnelle** | Installation de panneaux bilingues lors de chaque changement ou de nouveaux aménagements.
- **Signalétique interne** | Mise en place d'une signalétique interne bilingue et équilibrée au sein de l'Hôtel de Ville, et d'un message d'accessibilité plurilingues en direction des malvoyants.
- **Accueil téléphonique** | Intégration de la langue basque à chaque étape de l'accueil (attente, prédécroché, SVI, répondeur).
- **Divers** | Affichage bilingue : arrêts bus, info plages, horodateurs, lycée Malraux, Capiro, totems gymnases (en cours).
- **Cérémonies** | Traduction intégrale du déroulement des mariages et baptêmes civils.
- **Rapport** | Analyse du paysage linguistique biarrot (438 panneaux).

LIMITES OBSERVEES :

- **Panneaux d'information** | Panneaux de travaux, parcs publics, parkings et d'information locale essentiellement unilingues.
- **Noms de rues** | Panneaux intégralement unilingues.
- **Documents administratifs** | Papeterie, formulaires « maison » et documents divers essentiellement unilingues.

PROPOSITIONS D'ACTIONS :

- 8) Adopter une charte pratique du plurilinguisme sur la signalisation et les panneaux d'information. 12/2018
- 9) Traduire l'intégralité des affichages papiers de l'ensemble des bâtiments communaux et de la signalétique des nouvelles constructions (Villa Natacha, Thermes Salins...). 03/2019
- 10) Intégrer la langue basque dans la papeterie (papier à en-tête), documents administratifs (formulaires, factures) et supports d'usage interne (Le Tube, ordre de mission...). 12/2018
- 11) Proposer un livret de famille bilingue en sus du livret officiel. 10/2018



3.ardatza: HIZKUNTZA PAISAIA

Seinaletika elebiduna eta euskararen presentzia euskarrietan indartu

OBRATUTAKO EKINTZAK:

- **Norabide seinaleetika** | Seinale elebidunak ezarri dira aldaketa guzietan edo seinale berrien kasuan.
- **Barne seinaleetika** | Herriko Etxean barne seinaleetika elebidun eta orekatua ezarri da, eta mezu eleaniztun bat ikusmen urritasuna duten pertsonentzat.
- **Telefono harrera** | Euskara telefono harrerako etapa guzietan txertatu (igurikatzean, erantzun aitzin, erantzungailuan...).
- **Beste** | Afitxaketa elebiduna: autobus geltokietan, hondartzetan, ordu-markagailuetan, Malraux lizeoan, Capiro, gimnasioetako totemetan (egiten ari).
- **Zeremoniak** | Ezkontza eta bataio zibilen itzulpen osoa.
- **Txostena** | Biarritzeko hizkuntza-paisaiaren analisisa (250 seinale).

AURKITUTAKO MUGAK:


- **Informazio taulak** | Obrei buruzkoak, parke publikoetakoak, aparkalekuetakoak eta tokiko informazioa gehien bat elebakarrean dira.
- **Karriken izenak** | Denak elebakarrean dira.
- **Dokumentu administratiboak** | Papeteria, formularioak eta beste hainbat dokumentu gehienik elebakarrean.

EKINTZA PROPOSAMENAK:


- 8) Hiriko seinaleetika elebidunaren xarta praktikoa onartu (bisualak, aldizkaria, webgunean, gutunak...). 2018/12
- 9) Hiriko eraikin guzien paperezko afixaketak (ordutegi, informazio, konsignak...) osoki itzuli eta eraikuntza berrien seinaleetika (Villa Natacha, Urgatziak...). 2019/03
- 10) Papertegi euskarrietan elementu elebidunak integratu (idazpuru papera), dokumentu administratiboetan (formularioak, fakturak) eta barne dokumentuetan (Le Tube, misio ordrea...). 2018/12
- 11) Familia liburu elebidun bat proposatu ofizialaz gain. 2018/10



Diagnostic linguistique du paysage urbain Hiriko hizkuntza paisaiaren diagnostikoa



2/3 des 438 panneaux recensés sont unilingues. 72% des panneaux directionnels sont bilingues ou bilingues de fait. Une charte doit être définie pour la SIL et les panneaux d'information. 438 seinaleen 2/3a elebakarra da. Norabide seinaleen % 72 elebiduna edo berez elebiduna da. Xarta bat definitu behar da gaineratikoarentzat.



Afficher lisiblement le ticket sur le pare-brise du véhicule pour permettre les contrôles.
Failing to display a valid ticket in the windscreen of your car could result in a Penalty Charge Notice.
Colocar de manera legible el recibo del parking en el parabrisas del vehículo para permitir los controles.
Kontrolak ahalbidetzeko, txartela ibilgailuko parabrisan kokatu irakurgarri izateko gisan.





Axe 4 : FORMATION PROFESSIONNELLE

Engager le personnel communal dans une démarche de formation et d'usage de la langue dans le cadre professionnel

ACTIONS REALISEES :

- **Initiation** | Organisation d'une initiation à la langue basque (30h) en direction des élus (11 participants, 70% de taux de fréquentation) et des agents (10 participants, 90% de fréquentation). Reconduction de l'offre pour 3 nouveaux groupes en 2018/2019 (2/3 d'agents municipaux, 1/3 d'agents extérieurs).
- **Certification B1EA** | Préparation de 4 agents à la certification.
- **Rapport** | Evaluation intégrale du dispositif de formation spécifique.

LIMITES OBSERVEES :

- **Formation spécifique** | Aucun agent municipal engagé dans une démarche de formation.
- **Certification** | Seulement 2 agents certifiés B1.
- **Contraintes administratives** | Services frileux sur les demandes de formation des agents (usage, contraintes, absence).

PROPOSITIONS D'ACTIONS :

- 12)Reconduire l'initiation en direction des agents et des opérateurs extérieurs + Proposer une formule de préparation à la certification B1. 01/2019
- 13)Créer 1 groupe de formation spécifique niveau débutant et 1 groupe de niveau intermédiaire. 09/2019
- 14)Proposer des temps d'échanges en langue basque entre agents bascopphones. 01/2020



4. ardatza: FORMAKUNTZA PROFESIONALA

Herriko langileak formakuntza desmarxta batean eta lan arloan erabilpena gara

OBRATUTAKO EKINTZAK:




- **Iniziazioa** | 30 oreko euskara-iniziazio baten antolaketa hautetsientzat (11 parte-hartzaile, %70eko hantatze tasa) eta agenteentzat (10 parte-hartzaile, %90eko hantatze tasa). Iniziazioa berriz eskainiko dugu 2018/2019 ikasturtean 3 talderentzat (2/3 hiriko agenteentzat eta 1/3 kanpoko agenteentzat).
- **B1EA Ziurtagiria** | B1EA ziurtagiri frogarako 4 agenteen prestaketa.
- **Txostena** | Formakuntza berezituari buruzko ebaluazioa.

AURKITUTAKO MUGAK:


- **Formakuntza berezitua** | Ez da hiriko agenterik engaiatu.
- **Ziurtagiria** | Bi agentek soilik dute B1 ziurtagiria.
- **Hertsapen administratiboak** | Zerbitzu batzuk epelak haien agenteen formakuntza eskaeren parean (erabilera, hertsapenak, ausentziak).

EKINTZA PROPOSAMENAK:

- 12) Iniziazioa berriz ere eskaini kanpoko agente eta eragileei zuzendurik + B1 ziurtagiria prestatzeko formakuntza formula bat proposatu. 2019/01
- 13) Formakuntza berezituko talde bat osatu (hasiberriak) eta erdi-mailako talde bat osatu. 2019/09
- 14) Agente euskaldunen arteko truketeta momentuak proposatu. 2020/01



Forte fréquentation (90% pour les agents, 72% pour les élus) et bonnes appréciations (17,5/20 pour les élus, 18/20 pour les agents) pour l'initiation. Iniziazioaren parte-hartze azkarra (agenteen % 90 eta hautetsien % 72) eta iritzi positiboak (hautetsien nota: 17,5/20 eta agenteena 18/20).



Réorganisation de l'offre de formation autour de 4 formules. Formakuntza-eskaintzaren birmoldaketa 4 formulatan.



90% des agents et 75% des élus souhaitent donner suite à l'initiation. Agenteen % 90ak eta hautetsien % 75ak iniziazioaren ondotik segitu nahi dute.



Axe 5 : ACCOMPAGNEMENT DES OPERATEURS

Accompagner les acteurs dans leur volonté d'usage et de diffusion de l'euskara

ACTIONS REALISEES :

- **Subventions** | Attribution de subventions de fonctionnement à 17 opérateurs linguistiques (moyenne 204.000€/an).
- **Conventionnements** | Signature et suivi de conventions de partenariats avec le BOPB, Albaola et la Clinique Aguilera Capiro.
- **Convention tripartite** | Accompagnement dans l'autonomisation de l'Atabal, Skate Park et Biarritz Culture.
- **Accompagnement spécifique** | Suivi régulier, hausse de subvention, loyer modéré pour Ohakoa, Uda Leku, Ikastola, Aek.
- **Accompagnement courant** | Accompagnement de 52 opérateurs*, sur des missions de traduction, conseil, logistique, programmation, mise en relation et communication (149 interventions).
- **Vie associative** | Organisation d'une formation au bilinguisme (2h) dans le cadre des RV de la vie associative.
- **Rapport** | Analyse de l'accompagnement du service et mesure de la satisfaction des bénéficiaires.

LIMITES OBSERVEES :

- **Opérateurs majeurs** | Absence de la langue basque dans le commerce de proximité et les grands événements.

PROPOSITIONS D'ACTIONS :

- 15) Elaborer un dispositif d'accompagnement spécifique aux commerces, en concertation avec le service compétent. 10/2018
- 16) Elaborer un dispositif d'accompagnement spécifique au monde associatif, en concertation avec le service compétent. 01/2019
- 17) Encourager les grands événements à intégrer la langue basque en leur proposant un accompagnement technique (FIPA, Biarritz en été, Biarritz Amérique Latine...). 11/2018
- 18) Etudier les modalités d'accompagnement d'opérateurs majeurs (CCN, Le Royal, Biarritz océan, Biarritz Tourisme, Aéroport). 03/2019



5. ardatza: ERAGILEEN LAGUNTZA

Eragileak lagundu euskara erabili eta hedatzeko duten gogoan.

OBRATUTAKO EKINTZAK:

- **Diru-laguntzak** | 17 eragile linguistikoren funtzionamendurako diru laguntzen ematea (bataz bestean 204 000€ urtean).
- **Hitzarmenak** | Capiro Aguilera klinikarekin, BOPBrekin eta Albaolarekin izenpetutako partaidetza hitzarmenen jarraipena.
- **Hitzarmen hirukoitza** | Atabal, Skate Park eta Biarritz Culture egituren autonomizazioan laguntza.
- **Laguntza berezitua** | Jarraipen erregularra, diru laguntzen igoera eta neurrizko alokairua Ohakoa, Uda Leku, Ikastola eta Aek-rentzat.
- **Laguntza arrunta** | 52 eragileri* laguntza: itzulpen, aholku, logistika, programazio, harremantze eta komunikazio mailan (149 eskaera).
- **Elkarte bizia** | Elebiduntasunari buruzko formakuntza baten antolaketa, elkarte biziaren hitzorduen koadroan (2 ordukoa).
- **Txostena** | Zerbitzuaren laguntzaren analisia eta lagundutakoen asetzearen neurketa.


AURKITUTAKO MUGAK:

- **Eragile nagusiak** | Euskararen eskasa hurbileko komertzioetan eta gertakari handietan.

EKINTZA PROPOSAMENAK:


- 15) Komertzioei zuzenduriko laguntza dispositibo berezitu baten sortzea, dagokion zerbitzuarekin elkarlanean. 2018/10
- 16) Elkarte munduari zuzenduriko laguntza dispositibo berezitu baten sortzea, dagokion zerbitzuarekin elkarlanean. 01/2019
- 17) Gertakari handietan euskara integratzea ahalbidetu, laguntza tekniko bat eskainiz (FIPA, Biarritz en été, Festival Biarritz Amérique Latine...). 2018/11
- 18) Beste eragile nagusien laguntza moldeak aztertu (CCN MBB, Le Royal, Biarritz Océan, Biarritz Tourisme, Aireportua). 2019/03

ACCOMPAGNEMENT DES OPERATEURS ERAGILEEN LAGUNTZA 2015 - 2018




Convention avec le BOPB.
BOPB-Miarritze hitzarmena.

Statut des opérateurs accompagnés Lagundutako eragileen izaera




Subventions aux associations linguistiques Euskararen aldeko elkarten diru laguntzak



Convention Aguilera Capio – OPLB – Biarritz
Capio – EEP – Miarritze hitzarmena

Evaluation de la qualité du service Zerbitzuaren kalitatearen neurketa



* **Opérateurs accompagnées – Lagundutako eragileak:** AEK / Amalabak eta seme / APEC / Arroka / Atabal / Bai euskarari / BASCS / Bask travel festival / Btz Kantuz / Biarritz Accueil / Biarritz Evénement / Biarritz Danse School / Biarritz Les années folles / Les Halles / Biarritz Tourisme / BOPB / Biarritz Culture / Capio Aguilera / Cité de l'Océan / Commerçants des halles / Colorama / Comité des fêtes de la Négrresse / Comité fêtes Bibi Beaurivage / Comité des fêtes de St Charles / Donneurs de voix / Erabil / Euskabaret' / Euskal babel / Eusko Ikaskuntza / Festilasai / FIPA / Ikastola / Kanaldude / L'Accorderie / Le Royal / Maritzuli konpania / Matahami / Mintzalasai / Mizanbu / Mômes expo / Mondial de surf / Ohakoa / Olentzero / Les Petits débrouillards / Serres de la Milady / Serres de la milady / Skate park / Théâtre des Chimères / Théâtre des marionnettes / Théâtre du Versant / Uda Leku / XVIème homme...



Axe 6 : ACTIVITES LINGUISTIQUES

Organiser des actions linguistiques, en partenariat avec les différents opérateurs, afin de créer des opportunités d'usage

ACTIONS REALISEES :

- **Activités propres** | Organisation de Santa Agate txiki (transmission intergénérationnelle autour du chant et du bertso), Euskabaret en fédérant les 4 structures immersives de la ville.
- **Co-organisation** | « Mintzalasai », les journées de l'euskara au BAB en septembre. « Le printemps de l'euskara » en mars.
- **Accompagnement** | Appui de 32 activités/an organisées dans la ville, dans la valorisation ou l'ajout de la dimension linguistique*.
- **Communication** | Création, avec Mintzalasai, d'un annuaire complet, d'un agenda participatif et d'une lettre d'information des activités à l'échelle du BAB.

LIMITES OBSERVEES :

- **Evaluation** | Manque d'évaluation et de visibilité de l'offre d'activité en LB (nombre, fréquentation, public, porteur, fréquence).
- **Réactivité** | Manque de moyens pour renouveler les projets Eskol'arte (rencontre inter-écoles autour de la langue basque) et Pass'opor (programme d'activités en basque lors des vacances de printemps).

PROPOSITIONS D'ACTIONS :

- 19) Réaliser une évaluation des activités linguistiques au BAB, en identifiant les forces et faiblesses. 10/2018
- 20) Accompagner la dynamique Euskaraldia. 11/2018
- 21) Impulser des moments de pratique de la langue en direction des apprenants d'AEK. 03/2019
- 22) Relancer Pass'opor et Eskolarte. 04/2019
- 23) Développer une application mobile et interactive à l'échelle du BAB recensant les activités linguistiques. 09/2019



6. ardatza: HIZKUNTZA AKTIBITATEAK

Hizkuntza ekintzak antolatu, operadore desberdinekin lankidetzan, praktikatzeko aukerak sortzeko gisan.

OBRATUTAKO EKINTZAK:

- **Aktibitate propioak** | Santa Agate txiki-ren antolaketa (belaunaldien arteko transmisioa kantuen eta bertsoen bidez) eta Euskabaret-en antolaketa hiriko 4 murgiltze-egiturak elkartuz.
- **Elkarlanean antolatuak** | "Mintzalasai", euskararen inguruko egunak irailean BAB-n. "Euskararen loraldia" martxoan.
- **Laguntza** | Hirian antolatutako 32 jardueren sostengua, hizkuntzaren arloari dagokionez*.
- **Komunikazioa** | Mintzalasai-rekin batera, BAB-ko euskarazko jardueri buruzko aurkitegi bat, agenda bat eta informazio gutun baten osatzea.



AURKITUTAKO MUGAK:

- **Ebaluazioa** | Biarritzen euskaraz diren aktibitateen ikusgarritasun eta ebaluaketa eskasa (kopurua, parte-hartzea, antolatzailea, frekuentzia...).
- **Erreaktibitatea** | Eskol'arte (euskararen inguruko eskolen arteko topaketa) eta Pass'opor (Udaberriko oporren denboran euskaraz osatutako aktibitate egitaraua) proiektuen berritzeko baliabide eskasa.


EKINTZA PROPOSAMENAK:

- 19) BABko hizkuntza aktibitateen ebaluaketa burutu, indarrak eta ahuleziak identifikatu. 2018/10
- 20) Euskaraldia dinamika lagundu. 2018/11
- 21) AEKn euskara ikasleentzat hizkuntza praktikatzeko paradak sortu, eragileekin batera. 2019/03
- 22) Pass'opor eta Eskolarte antolatu. 2019/04
- 23) Euskararen agenda parte hartzailea biltzen duen aplikazio mugikorra sortu BAB mailan. 09/2019

* **Activités linguistiques accompagnées :** Bertsulari txiki, Biarritz Beer Festival, Bi Harriz Lau Xori, Colloque Versant, Dena istorio, EH kantuz, Exposition Médiathèque, Exposition Soka, Exposition Zigor, Fêtes de Bibi-Beaurivage, Journée européenne du patrimoine, Korrika, Le Temps de mômes, Lectures de contes, Lurrama, Mintzalasai, Mômexpo, Olerkitick, Regards croisés, Salon en famille, Temps d'aimer, The Yennes, Tournoi Touch rugby, Txistularien eguna, Olentzero...



Mintzalasai fédère actuellement 45 structures du BAB autour de l'organisation de 75 rendez-vous. En 3 ans, la fréquentation a été multipliée par 2,5. Gaur egun BABko 45 egiturek osatzen dute Mintzalasai 75 hitzordu antolatuz. 3 urtean, parte-hartzea 2,5ez biderkatu da.





Axe 7 : ENSEIGNEMENT-APPRENTISSAGE-PETITE ENFANCE

Favoriser l'enseignement et l'apprentissage de la langue par les enfants et adultes

ACTIONS REALISEES :


- **Crèche bascophone** | Revalorisation de l'aide à la crèche Ohakoa (subvention, loyer, travaux) suite à une analyse détaillée.
- **Basque renforcé** | Lancement d'une expérimentation de temps d'enseignement en basque en PS et MS au Reptou.
- **Activités péri-éducatives** | Mise en place d'activités périscolaires et d'un encadrement en basque au sein des établissements bilingues. Financement des NAP à l'ikastola.
- **Villa Fal** | Accompagnement de l'établissement dans la poursuite de l'option basque en 6^{ème} (augmentation de 35% des effectifs en 3 ans et poursuite de 88% au lycée contre 6% en 2017.)
- **Apprentissage des adultes** | Accompagnement d'AEK.
- **Rapport** | Analyse de l'offre d'enseignement du basque à Biarritz et de faisabilité d'ouverture d'une nouvelle section bilingue.
- **Ikastola** | Entretien et amélioration des locaux.

LIMITES OBSERVEES :

- **Petite enfance** | 82% des enfants gardés en structure multi-accueil le sont en français.
- **Enseignement bilingue** | Depuis 6 ans, la part des élèves scolarisés en bilingue stagne autour de 20%, sans opportunité d'augmentation.
- **Apprentissage des adultes** | Dépôt de bilan de l'association Maite Dugulako qui proposait une offre complémentaire à celle d'AEK.

PROPOSITIONS D'ACTIONS :

- 24) Proposer un accueil bilingue au sein de la crèche municipale des Thermes Salins (modèle A ou C de LEHA). 01/2019
- 25) Interroger les parents sur l'ouverture d'une nouvelle section bilingue. 02/2019
- 26) Poursuivre la démarche d'amélioration de l'enseignement bilingue à Biarritz : encadrement (ATSEM, personnel de cantine, animateurs) et organisation des activités péri-éducatives en LB. 06/2019



7. ardatza: IRAKASKUNTZA – IKASPENA – LEHEN HAURTZAROA

Hizkuntzaren irakaskuntza bultzatu haur eta helduei begira

OBRATUTAKO EKINTZAK:

- **Euskarazko hartzaindegia** | Ohakoa hartzaindegiari eman laguntzaren balorizazioa (diru-laguntzak, alokairua, obrak) analisi zehatz baten ondotik.
- **Euskara azkartua** | Euskararen irakaskuntza denborari buruzko esperimentazioa Reptou-ko sail tipi eta ertainetan.
- **Eskolaz kanpoko jarduerak** | Egitura elebidunetan euskarazko jardueren plantan ezartzea. Ikastolako NAP-en finantzamendua.
- **Villa Fal** | Laguntza ematea euskara opzioa seigarrenean ere segi dezaten (3 urtez kopuruak % 35ez emendatu dira eta aurten % 88ak lizeoan euskara segitzen du iaz % 6 zirelarik).
- **Helduen ikaskuntza** | AEK laguntzea.
- **Txostena** | Euskararen irakaskuntza eskaintzaren eta sail elebidun berri baten idekitzearen azterketa.
- **Ikastola** | Egoitzaren entretenimendua eta hobetzea.


AURKITUTAKO MUGAK:

- **Haur ttipiak** | Hartzaintza estructuretan dauden haurren %82a frantsesez zainduak dira.
- **Irakaskuntza elebiduna** | Badira 6 urte euskara ikasten duten haurren kopurua ez dela mugitzen (% 20), emendio aukerarik gabe.
- **Helduen ikaskuntza** | Maite Dugulako elkartearen bilana, eskaintza osagarria egiten dute AEKrekiko.

EKINTZA PROPOSAMENAK:


- 24) Urgatzietako herri-hartzaindegian harrera elebiduna eskaintzea (LEHAko A edo C modeloa). 2019/01
- 25) Sail elebidun berri baten idekitzeari buruz gurasoak galdekatu. 2019/02
- 26) Biarritzeko irakaskuntza elebiduna kualitatiboki hobetzen segitu, gidaritzaren bidez (ATSEM, jantegiko langilegoa, animatzaileak) eta eskolaz kanpoko aktibitateak euskaraz antolatu. 2019/06

Evolution du pourcentage d'enseignement bilingue (%)





Depuis 5 ans, la proportion d'élèves scolarisés en bilingue stagne autour de 22%.
 Sans nouvelle ouverture de classe, les perspectives d'évolution sont faibles.
 Duela 5 urtetik hona, sail elebidunean ikasten duten ikasleen kopurua %22koa da.
 Ikasgela berririk ideki ezean, garapen perspektibak urriak dira.

Evolution des effectifs globaux et bilingues



Répartition des élèves par école 2016/2017





Axe 8 : INFORMATION-SENSIBILISATION

Elaborer et diffuser des dispositifs d'information et de sensibilisation en direction du public.

ACTIONS REALISEES :

- **Campagne enseignement** | Diffusion de livrets d'information, affichage, organisation de réunions publiques et d'une conférence.
- **Pack de sensibilisation** | Envoi aux parents de nouveau-nés.
- **Lexiques de poche** | Refonte de la collection dans le cadre d'une mutualisation et diffusion optimisée et efficiente.
- **Site internet** | Alimentation et actualisation du site de la LB. Puis repositionnement du site de Mintzalasai à l'échelle du BAB (actu, agenda, annuaire, cartographie...).
- **Sensibilisation** | Intervention auprès de collégiens et jeunes en séjour linguistique (Alliance française).
- **Conférences** | Organisation de conférences sur la question des langues (L-J Calvet, B. Abdelilah-Bauer, N. Tournadre, P. Blanchet).
- **Kit Besta** | Création, avec Mintzalasai, d'un ensemble de matériel afin de renforcer l'usage de l'euskara en milieu festif.

LIMITES OBSERVEES :

- **Nouveaux arrivants** | Absence de dispositif propre.
- **Bulletin papier** | Fin du bulletin papier Zer Diozu.

PROPOSITIONS D'ACTIONS :

- 27) Actualiser le guide des loisirs bascophones (échelle BAB). 12/2018
- 28) Elaborer un kit à destination des nouveaux arrivants et des populations de passage (congressistes, touristes, jeunes...). 03/2019
- 29) Créer de nouveaux lexiques en lien avec les projets en cours + Concevoir un atelier et du matériel d'usage des lexiques, en direction des différents publics. 01/2019
- 30) Organiser une campagne d'information municipale sur le bilinguisme. Dossier magazine, affiches, conférence... 03/2019



8. ardatza: INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Publikoari zuzendu dispositiboak apailatu eta hedatu.

OBRATUTAKO EKINTZAK:

- **Irakaskuntza kanpaina** | Informazio-liburuxken banaketa, afitxaketa, bilkura publiko eta mintzaldien antolaketa.
- **Sentsibilizazio Packa** | Sortu berrien buraso biarritzarrei igorria.
- **Hiztegi txikiak** | Bildumaren birmoldatzea mutualizazio koadro batean eta hedapen hobea lortzeko helburuarekin.
- **Webgunea** | Webgunearen eguneratze osoa eta elikadura. Bestalde, Mintzalasai webgunearen berregituratzea BAB mailan (berriak, agenda, aurkitegiak, kartografia...).
- **Sentsibilizazioa** | Egonaldi linguistikoan ziren gazteen aitzinean hitzaldia (Alliance française).
- **Hitzaldiak** | Hizkuntza gaiei buruzko hitzaldien antolatzea (L-J Calvet, B. Abdelilah-Bauer, N. Tournadre, P. Blanchet).
- **Kit Besta** | Mintzalasai elkartearekin batera euskararen erabilera besta munduan azkartzeko material baten sortzea.

AURKITUTAKO MUGAK:


- **Biztanle berriak** | Biztanle berrien informazio propio falta.
- **Paperezko aldizkaria** | Zer Diozu aldizkariaren bukaera.

EKINTZA PROPOSAMENAK :

- 27) Euskarazko aisialdien gida gaurkotu (BAB mailan). 2018/12
- 28) "Ongi etorri" kit bat landu, biztanle berrientzat eta pasatzen direnentzat (kongresistak, turistak, gazteak...). 2019/03
- 29) Momentuko proiektuei lotutako hiztegi berriak sortu + Hiztegiak baliatzen ikasteko tailer eta materiala sortu, publiko desberdinei begira. 2019/01
- 30) Elebiduntasunari buruzko informazio kanpaina munizipala antolatu. Aldizkari dosierra, afitxak, mintzaldiak... 2019/03




Modes de diffusion des lexiques Hiztegien banaketa mota



- Distribution directe - Banaketa zuzena
- Points de dépôts - Harbide banaketa

Points de diffusion des lexiques Hiztegien banaketa guneak



A Biarritz, 4.717 étuis de lexiques de poche ont été distribués. 1/3 l'ont été dans des points de dépôt des services municipaux. L'accueil a été très enthousiaste. Banatutako 4 717 zorroek harrera biziki ona ukan dute. 1/3a hiriko zerbitzuen bidez banatua izan da.

Biarritz euskaraz
Site municipal dédié à la langue basque

Actualité | Politique linguistique | Ressources | Répertoire

Actualité

- Le projet
- Les chiffres clé
- Les documents
- Liens

Chercher

Besoin d'accompagnement ?
Traduction, conseil, formation, mise en réseau...
Contactez-nous

Mintza Casai

Lexiques

#ElkarEkin
46. UDAKO IKASTAROAK
UEU (l'Université Basque d'Été) organise des cours d'été à Bayonne

UEU est une association qui a pour but de lier le basque et l'université, de réunir la communauté scientifique bascophone, d'offrir une formation de haut niveau en langue basque. Parmi ses différentes actions, elle organise des cours d'été, et cette année ce sera la ...



Depuis 5 ans : 46.922 utilisateurs - 162.709 pages vues - 1.203 articles postés – Compte FB dynamique, suivi par 3895 contacts.
Azken 5 urteetan: 46 922 erabiltzaile – 162 709 orrialde ikusiak – 1 203 artikulua – FB kontu dinamikoa, 3 841 kontaktuk segituz.

Campagnes sur la transmission familiale et scolaire de l'euskara : 3.500 livrets d'information, 75 affiches A3, 15 Decaux. 350 Packs envoyés.
Familia eta eskola transmisioari buruzko kanpainak. 3 500 informazio-liburuxka, 75 A3 afixa eta 15 Decaux. 350 Pack bidaliak.

CONCLUSION

Ce rapport dresse le **bilan de 3 ans d'action**, mais s'inscrit dans la continuité de 25 ans de politiques publiques à l'échelle d'une commune. De la construction de l'ikastola en 1991, à l'expérimentation d'enseignement en "basque renforcé" dans l'enseignement public en 2012, en passant par l'ouverture de la première crèche bascophone du territoire en 1997, et à la section basque au sein de la Médiathèque en 2005, la ville de **Biarritz a été pionnière** sur bon nombre de projets.

Mais ce document fait aussi office de feuille de route pour les 2 années à venir, en formulant **30 préconisations** et un calendrier précis afin de continuer à œuvrer activement à la réappropriation linguistique. Ces propositions consolident les 4 enjeux fixés dans le projet de politique linguistique de la ville :

- 1) Augmenter le nombre de locuteurs, par un accueil collectif de la petite enfance, l'ouverture d'une nouvelle section bilingue, l'apprentissage des adultes et des agents...
- 2) Développer la pratique sociale, en donnant de la visibilité à l'offre d'activités en langue basque, accompagnant les lieux de diffusion de l'euskara, renforçant la mise en réseau des locuteur...
- 3) Améliorer l'usage et la visibilité, en intégrant l'euskara au paysage urbain, en diversifiant les services à la population en basque, en utilisant davantage l'euskara dans la communication publique...
- 4) Agir sur le prestige et l'attractivité, grâce à de nouveaux dispositifs de sensibilisation, en partageant toujours plus le défi linguistique, en informant sur les atouts du plurilinguisme...

La revitalisation d'une langue est un processus au long souffle qui se joue sur plusieurs générations. Même si les langues sont plus vulnérables en milieu urbain, c'est là que se joue leur avenir. Les 3 communes du BAB où vivent près de 40% des locuteurs du territoire ont un rôle essentiel à jouer ensemble.

En contribuant au renouveau de l'euskara, Biarritz s'inscrit ainsi dans une dynamique globale de maintien de la diversité culturelle. Mais ce positionnement est aussi parfaitement cohérent avec l'ancrage territorial de ville côtière de renommée internationale, empreinte d'une identité locale forte.

A l'heure de clore la 3^{ème} et dernière convention entre la ville et l'OPLB, il convient de remercier les élus successifs qui ont défendu ce projet... en renouvelant l'invitation à continuer à travailler ensemble.

ONDORIOA

Txosten zehatz honek Biarritzen euskararen aldeko **3 urteko ekintzen bilana** egiten du, baina, herri mailako 25 urteko politika publikoaren jarraipenaren baitan kokatzen da. 1991n ikastola eraikiz, 1997an lurraldeko lehen euskarazko haurtzaindegia irekiz, 2005ean mediateka berrian euskara eta euskal kultura saila zabalduz eta 2012an irakaskuntza publikoan "euskara indartua" irakaskuntza esperimentatuz, proiektu anitzetan, **Biarritzeko herria aitzindaria** izan da.

Baina idazki hori datozen 2 urteetako bide orria da: hala, euskararen biziberritzean aktiboki jarduteko **30 proposamen** luzatzen dira. Proposamen hauen helburua Biarritzeko hiriko hizkuntza politika proiektuan finkatu 4 erronkak indartzea da:


- 1) Hiztun kopurua emendatzea, haur ttipien zaintza kolektibo bat antolatuz, sail elebidun berri baten idekiz, helduek eta agenteek euskara ikasiz...
- 2) Erabilera soziala garatzea, euskarazko jardueren eskaintza argitaratuz, euskararen hedapen guneak lagunduz, hiztunen arteko saretzea indartuz...
- 3) Hizkuntzaren erabilpena eta ikusgarritasuna hobetzea, euskara hiriko paisaian integratuz, herritarrei zerbitzuak euskaraz eskainiz, komunikazio publikoan euskara gehiago baliatuz...
- 4) Hizkuntzaren prestigioan eta erakargarritasunean eragitea, sentsibilizazio dispositibo berriak sortuz, erronka linguistikoa partekatuz, eleaniztasunaren abantailez jakinaraziz...

Hizkuntza baten biziberritzeko prozesua luzea da. Hizkuntza baten berriz jabetzeko zenbait belaunaldi behar dira. Nahiz eta hizkuntzek zailtasun gehiago duten eremu urbanoan, bertan jokatzeko da haien geroa. Etorkizunean, hiztunen % 40a metatzen den BAB eremuak rol aktiboa jokatu beharko du.


Mende laurden bat darama Biarritzek euskararen biziberritzearen alde lanean, orohar kultur-aniztasuna mantentzearen alde. Izan ere, jarrera hori guztiz koherentea da Biarritzek lurraldearekiko duen loturarekin, nazioartean ezaguna den kostaldeko hiria izateaz gain, tokiko nortasun azkarra baitu.

Biarritzeko hiria eta EEPren arteko hirugarren eta azken hitzarmenari bukaera emateko momentu honetan, proiektua defendatu duten hautetsiei eskerrak eman nahi genizkieke, eta elkarrekin lan egiten segitzeko gomita luzatu

CALENDRIER DES NOUVELLES RÉALISATIONS ::: EGITASMO BERRIEN EGUTEGIA



EVALUATION DE LA POLITIQUE LINGUISTIQUE ::: HIZKUNTZA POLITIKAREN EBALUAKETA



Un aperçu graphique de l'avancée de l'action linguistique à Biarritz:

4 indicateurs par axe de travail (quantitatif, qualitatif, impact, ressenti) // Chaque indicateur noté entre 1 et 5 // Des objectifs chiffrés pour 2019.

Hizkuntza politikaren aitzinamenduaren irudikatzea:

Lan ardatz bakoitzeko 4 adierazle (kuantitatibo, kualitatibo, inpaktua, sentipena) // Adierazle bakoitza 1 eta 5en artean ebaluatua // 2019rako helburu zenbatuak.



VILLE DE BIARRITZ – BIARRITZEKO HIRIA
Service langue basque – Euskara zerbitzua

VILLA NATACHA
110, rue d'Espagne – Espainiako karrika, 110
64200 BIARRITZ

■ euskara@biarritz.fr ■ 05.59.41.57.55. ■